

BATERALABS-EN OARSOALDEKO ESKUALDEKO 2. SAIOAREN AKTA

Data: 2026ko uztaialren 16a (osteguna)

Lekua: Xenpelar aretoa, Errenteria, Gipuzkoa

1. Ekitaldiaren helburua

Ekitaldiaren helburua **Oarsoaldeko** herritarren partaidetza-laborategiari jarraipena ematea izan zen. Laborategi horren xedea da klima-alaketaren aurrean eskualdearen errealitatera egokitutako irtenbideak sortzea, herritarren parte-hartzearen bitartez. Bigarren saio honen helburu nagusia aurreko saioan identifikatutako erronkak eta problematikak lantzea izan zen, hautemandako erronkei erantzuteko proposamen zehatzak elkarlanean garatuz.

Saioak aukera eman zuen **parte-hartzaileek lehenetsitako jarduera-eremuetan sakontzeko**, irtenbide posibleak definitzeko, inplikaturako eragileak identifikatzeko eta etorkizunean gauzatzeko lehen jarduera-ildoak ezartzeko. Horretan guztian udal eta eskualde mailako erakundeetako ordezkariak, auzo-elkarteak, sektore-elkarteak eta klima-alaketaren aurrean eskualde jasangarriago eta erresilienteago bat eraikitzen lagundu nahi duten herritarrek parte hartu zuten.

2. Ekitaldiaren garapena

2.1 Blokeen garapena

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

1. Ongi etorri instituzionala (5 min)

- **Arduradunak:** Xabier Esteban, Naturklimako zuzendaria.
- **Deskribapena:** Xabier Naturklimako ongietorri hitzekin hasi zen. Bertan, eskerrak eman zitzaizkien parte-hartzaileei BateraLabs prozesuan parte hartzen jarraitzeagatik. Era berean, lehen saioan egindako lana nabarmendu zen, baita bigarren jardunaldi

honen garrantzia ere, Oarsoaldean identifikatutako klima-erronkei erantzuteko proposamenak elkarlanean garatzeko.

2. Lehenengo saioan identifikatutako erronken itzulketa (5 min)

- **Arduradunak:** Dorleta Orúe-Echevarría, Naturklima Behatokiaren koordinatzailea.
- **Deskribapena:** Lehen saioan identifikatutako erronkak eta planteamenduak aurkeztu ziren, eskualdean jarritako postontziaren eta bateralabs.eus webgunearen bidez jasotako ekarpenetan oinarrituta. Era berean, erronkak gai-ardatzen arabera aurkeztu ziren, eta kolektiboki identifikatutako problematikak modu bisualean erakusten zituzten mapak aurkeztu ziren.

3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (5min)

- **Arduraduna:** Luzia Salamanca, Osoigoko proiektuen arduraduna.
- **Deskribapena:** Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: saioan lantzeko erronkak eta planteamenduen lehenengo lehenespina egiteko erabilitako irizpideen eta dinamika parte-hartzaile desberdinen azalpena, hala nola, lehentasunak eta proposamenak batera sortzeko lana.

4. Parte-hartze dinamika (40 min)

Saioa jardunaldian landuko ziren erronkak eta planteamenduak hautatzeko prozesuaren azalpenarekin hasi zen. Lehenengo saioan jasotako ekarpen kopuru handia zela eta, aurretik antzeko proposamenak araztu eta taldekatu ziren, bikoiztasunak ezabatuz eta gaika antolatuz.

Ondoren, proposamenak hiru irizpideren arabera aztertu ziren: irizpide teknikoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekin bat zetoze baloratzeko; irizpide politikoa, Jasangarritasun Departamentuaren ildo estrategikoekin lerrokatuta zeudela balioztatzeko; eta irizpide ekonomikoa, aurreikusitako aurrekontuarekin eskualde guztietan proposamenak garatu ahal izatea kontuan hartuz.

Ondorioz lortutako erronkak eta planteamenduak parte-hartzaileei aurkeztu zitzaizkien, eta haiek kolektiboki lehenetsi zituzten, saioan landu beharreko ardatz tematiko bakoitzeko erronka bat hautatzeko.

Ostean, parte-hartzaileak ga-ardatzetan antolatutako lan-mahaietan banatu ziren, eta, lan-fitxen laguntzaz egindako ko-sorkuntza dinamika baten bidez, hautatutako erronketan sakondu eta horiei erantzuteko proposamen zehatzak garatu zituzten. Kasu honetan, parte-hartzaile kopurua dela eta, lau lan-mahaitan banatu ziren, nahiz eta sei gai-ardatz landu ziren, eta, beraz, sei proposamen garatu ziren. Gobernantzaren gai-ardatza gelditu zen proposamenik gabe.

Mahaietako batean proiektuen aurkezpena amaitu zenean, bozeramaileak adierazi zuen mahaikideak harrituta geratu zirela hondakinen kudeaketaren erronkaren balizko proposamenen artean atez ateko hondakin-bilketa sistema kentzea jaso zelako, are gehiago proposamenak hautaketa-iragazkiak gainditu ondoren. Parte-hartzaileek adierazi zuten sistema horrek birziklatze-tasa handiak lortzen laguntzen duela eta, Oarsoaldeko zenbait udalerritan, tasa horiek behera egin dutela sistema kendu ondoren. Antolakuntzak erantzun zuen ohar hori etorkizuneko saioetan kontuan hartuko zela, eta saioaren aktan ere jasoko zela.

Azkenik, landutako proposamenak partekatu egin ziren eta lehentasun-ariketa bat egin zen, parte-hartzaileen ustez garrantzitsuenak edo premiazkoenak zirenak identifikatzeko. Azpimarratu zen leheneste horrek ez zuela izaera loteslerik eta ez zuela suposatzen garatuko diren proiektuen behin betiko hautaketa. Aitzitik, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat balorazio-elementu gehigarri bat da, ondoren egingo diren azterketa teknikoarekin eta bideragarritasun-azterketarekin batera. Saioan sortutako proposamen guztiak prozesuaren azken portafolioan jasoko dira.

Jarraian, lan-mahaietan landutako proposamenak jasotzen dira, azken lehentasun-ordenaren arabera. Kasu honetan, lehenengo bi proposamenek puntuazio bera lortu zuten.

1. Hiri-inguruneak birnaturalizatzeko dirulaguntzak

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Hiri-berroneratzea / Eremu estrategikoak
- **Erronka:** Berdeguneak handitzea

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Kale, plaza eta abarretan zoladura gogorra (zementua) da nagusi. Itzala eman eta airea garbituko duten zuhaitzak falta dira. Eraikinak babesik gabe daude.
- **Proposatutako irtenbidea:** Udalek landare-estaldura handitu eta espazioak birnaturalizatu ahal izateko dirulaguntza-lerro bat sustatzea. Bertako landaredia eta mantentze-lan gutxi behar duten espezieak landatzea bultzatuko da.
- **Kokapena:** Oarsoaldea osoan, modu orekatuan. Hala ere, premia handiagoa duten eremu batzuk identifikatu dira, hala nola Pasai San Pedro.
- **Onuradunak:** Herritar guztiak. Horrez gain, biodibertsitatea eta tokiko ekonomia (merkataritza, aisialdia...) indartuko dira.
- **Inplikaturako eragileak:** Administrazio publikoek eta udalek gauzatuko dute; finantzaketa Aldundiaren esku egongo da; eta herritarrek eta elkarteek egingo dute hedapena, Oarsoaldea Garapen Agentziarekin adostuta.
- **Hurrengo urratsak:** Herritarrei, udalei eta Oarsoaldeko Garapen Agentziari entzutea, baita puntu kritikoak eta lehentasunezkoak identifikatzea ere.

2. Hiri-eremuak birnaturalizatzea

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Klima-aldaketa
- **Erronka:** Hirietako beroa

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Hormigoi gehiegi eta berdegune gutxi daude.
- **Proposatutako irtenbidea:** Hiri-eremuak modu jasangarrian birnaturalizatzea, zuhaitzak landatuz. Horretarako, hainbat sektore eta arlotako profesionalekin koordinatu beharko da, hala nola arkitekturarekin, lorezaintzarekin eta faunaren kudeaketarekin. Zuhaitzen bidez itzala sortu ezin den espazioetan, beste material edo baliabide batzuk erabiliko dira. Arreta berezia jarriko da haur-parkeetan.
- **Kokapena:** Udalerrietako hiri-eremuetan.
- **Onuradunak:** Herritar guztiak.
- **Inplikaturako eragileak:** Administrazio publikoak.
- **Hurrengo urratsak:** Borondatea, erabaki politikoa eta akordioak.

3. Intermodalitatea: anezka-zerbitzuak ordutegi jakinetan

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Mugikortasun jasangarria
- **Erronka:** Garraio publikoa hobetu eta zabaltzea

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Ez dago garraio publikorik pertsona asko mugitzen diren eremu batzuetara, hala nola industrialde eta lantokietara edo ikastetxeetara.
- **Proposatutako irtenbidea:** Une eta ordutegi jakinetan garraio publikoko anezka-zerbitzuak antolatzea, eremu horiek beste garraiobide batzuen galeku eta geltokiekin —Topoarekin, adibidez— lotzeko eta, horrela, intermodalitatea sustatzeko.
- **Kokapena:** Oiartzungo erdigunetik Euskotreneko geltokira; Lezoko Renfeko geltokitik Ipintzako industrialdera.
- **Onuradunak:** Langileak, herritarrak eta ikasleak.

4. Energia-efizientzia handitzeko laguntzak

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Energia
- **Erronka:** Energia-efizientzia hobetzea

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Gipuzkoak elektrizitatea sortzeko duen energia-mendekotasuna.
- **Proposatutako irtenbidea:**
 - Eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak eta laguntzak.
 - Argiteria publikoa LED argiekin ordezkatzeko eta eguzki-panelak instalatzea.
 - Energia-komunitateen sorrera sustatzea.
 - Galdarak eraginkorragoak diren beste batzuekin ordezkatzeko laguntzak.
- **Kokapena:**
 - Udalerrietako auzoetan, energia-komunitateen kasuan.
 - Eraikinetan.
- **Onuradunak:** Herriar guztiak.
- **Inplikaturako eragileak:**
 - Argiteria-sistema -> udala.
 - Energia-komunitateak -> herritarrak eta Aldundia.
 - Dirulaguntzak -> udala eta Aldundia.
- **Hurrengo urratsak:** Aurrekontua zehaztea.

5. Jardunbide egokiak balioan jartzeko hezkuntza-ibilbidea, bereziki gazteei zuzendua

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Hezkuntza / Kultura
- **Erronka:** Klima-aldaketarekin lotutako hezkuntza eta sentsibilizazioa

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Gizarteak ez du ingurumenarekiko jokabide egokirik, jardunbide egokiak garatu ahal izateko beharrezko informazio eta heziketa falta direlako.
- **Proposatutako irtenbidea:** Administrazio publikoen komunikazio-kanalak erabiltzea ahaldundutze- eta hezkuntza-mezuak zabaltzeko eta jardunbide egokiak sustatzeko; jardunbide egokiei buruzko tailerrak antolatzea; lortutako emaitzekin zer egiten den azaltzea; eta gazteen artean aldaketa-eragileen sare sendo bat sortzea, klima-aldaketarekin lotutako arazoei irtenbideak proposatzeko aukerak eskainiz.
- **Kokapena:** Eskualdeko lau udalerrietan.
- **Onuradunak:** Erabiltzen diren administrazio-kanalen arabera. Gazteengana lehendik dauden kanalen bidez iritsiko da (kuadrillategiak, gaztelekuak...). Eguneroko jardueren kudeaketan parte hartzen duten pertsonak ere izango dira onuradun: familiak, amak eta aitak, eta emakumeak.
- **Inplikaturako eragileak:** Administrazio publikoak, elkarteak eta ikastetxeak.
- **Hurrengo urratsak:**
 - Gazteentzako baliabide sorta bat sortzea.
 - Gazte-taldeei zuzendutako ahaldundutze-tailerrak egitea, haien eguneroko errealitatetik abiatuta.
 - Irtenbideak bilatzeko motibazioa sustatzea. Adibidez, plastikoen erronkari erantzuteko, gazteei zuzendutako lehiaketa bat antolatzea, irtenbideak proposa ditzaten, eta ekarpenik onena aitortza publiko baten bidez saritzea.

6. Birziklapenari buruzko sentsibilizazio-kanpainak

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Ekonomia zirkularra
- **Erronka:** Hondakinen kudeaketa

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Edukiontziak ez dira irisgarriak eta kartel gehiegi daude.
- **Proposatutako irtenbidea:** Adinekoentzat irisgarriak diren edukiontziak jartzea, kartelak kentzea eta birziklapenari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- **Kokapena:** Kaleak.
- **Onuradunak:** Herritar guztiak.
- **Inplikaturako eragileak:** Udalak eta Aldundia.
- **Hurrengo urratsak:** Aurrekontua zehaztea.